

EUSKARAZKO HARREMANAK AREAGOTZEKO METODOLOGIA PROPOSAMENA

HERRI AGINTEEN KOORDINAZIORAKO BATZORDEA

2019KO AZAROAREN 12A



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

HERRI ADMINISTRAZIOEN ARTEKO EUSKARAZKO HARREMANAK AREAGOTZEKO METODOLOGIA PROPOSAMENA

HERRI AGINTEEN KOORDINAZIORAKO BATZORDEA

2019KO AZAROAREN 12A



Vitoria-Gasteiz, 2019

AURKIBIDEA

1. Sarrera	7
2. Administrazioen arteko harremanak euskaraz izan daitezen aldatzeko metodologia.....	9
3. Helburu nagusia	12
4. Helburu orokorrak	12
5. Helburu zehatzak eta haiei lotutako adierazle panela.....	13
6. Helburuak lortzen laguntzeko urrats posibleak.....	14
7. Langile euskaldunek administrazioen arteko harremanetarako hizkuntza irizpideak	15

1. SARRERA

HAKOBA Hizkuntza Politika gaietarako Herri Aginteen Koordinazio Batzordea da, eta hauexek dira partaideak: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza, IVAP, hiru foru aldundiak, hiru hiriburu-udalak, EUDEL eta UEMA.

HAKOBAren 2016ko ekainaren 2ko bileran aipatu zen Eusko Jaurlaritzak bere garaian egin zuela legezko txostena, hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko tesia defendatuz, alegia, Euskararen Legean oinarrituta, herritarren hautua babestuz eta administrazioen arteko harremanetan euskara hutsezko erabilera defendatuz. Geroztik, epaiak ere egon ziren tesi hori berori berretsiz, bai Donostiako Epaitegiaren aldetik bai Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren aldetik, jurisprudenzia ezarriz, gainera. HAKOBAren ikuspegitik proposatu zen saioak egitea administrazioen arteko harremanak, euskaraz izateko baldintzak daudenean, euskaraz izan zitezen, apurka-apurka euskaraz jardungo zuten sareak hedatuz.

Hortik aurrera HAKOBA teknikorako erakundeen izendapenak eskatu ziren.

2017ko uztailaren 19an HAKOBA politikoan HAKOBA teknikoak proposatutako lehen proiektua abian jartzea erabaki zen: Genero Berdintasun teknikarien unibertsoa aukeratu zen administrazioen arteko euskarazko komunikazioak areagotzeko proiektuaren lehen fasean. Baldintza egokiak zeuden halako pauso kualitatibo bat emateko: Emakunde proiektuan laguntzeko prest zegoen, gainontzeko erakundeekin koordinazio lanak egiteko eta Emakunde barruan pauso hori emateko; gainera, Genero Berdintasun teknikarien artean euskararen ezagutza oso handia zen.

HAKOBA teknikoak proposatutako metodologia aurkeztu zen. Honako pausoak barne hartzen zituen:

1. Berdintasun teknikarien azterketa komunikatiboa egitea galdetegi baten bitartez egoera komunikatiboa zertan den jakiteko (diagnostikoa).
2. Hobekuntzarako tartekak identifikatzea.
3. Konpromisoak hartzea.
4. Adierazleak hautatzea.
5. Ebaluazioa.

Urte hartan, urrirako 65 erakundek proiektuan parte hartzea erabaki zuten: 50 udalek eta beste 15 erakundek.

2018ko azaroko HAKOBAren Genero berdintasunaren arloko diagnostikoa aurkeztu zen, eta handik aurrera erakundeek helburuak lortzeko ekimenak abian jarri zituzten.

Administrazioen arteko euskarazko harremanak areagotzeko proiektua hedatzeko asmoz, 2019ko otsailaren 11ko bileran HAKOBA politikoari kultura arloko langileen hizkuntza ezagutzaren diagnostikoa aurkeztu zitzaion. Hala ere, unibertso hori handiegia zenez,

Kultura arloaren barruko arlo hauetako langileriara mugatu zen unibertsoa: Liburutegiak, Kultura Sustapena eta Ondarea. Izan ere, hizkuntza ezagutza maila nahiko handia da arlo hauetako langileen artean, Genero Berdintasunean baino baxuagoa baina altua, hala ere.

Aurreko fasean gertatu ez zen bezala, orduan, kanpo-enpresa bat kontratatzea erabaki zen (EUSTATEk hala gomendatuta) langile horien guztien hizkuntza-erabilerari buruzko hasierako diagnostia egiteko. Handik bi urtebetara, berriro ere egingo da diagnostia, aurrerapausoak neurtzeko asmoz; hots, hizkuntza-ohiturak eta erabilera benetan aldatu ote diren jakiteko.

2019ko uda bitartean diagnostikoa egiteko prestakuntza lanak egin ziren HAKOBA teknikoan, eta hortik azarora bitartean metodologia proposamena biribiltzen lan egin du HAKOBA teknikoak. Azaroan SIADECOK diagnostikoak (Genero Berdintasunaren eta Kulturaren arlokoak) aurkeztu zituen HAKOBA teknikoan lehenik eta politikoan azaroaren 12an.

Hauek dira proiektuaren bigarren fasean parte hartu dutenen kopuruak:

1. Genero berdintasunaren arloan: 140 bat langilek (aurrekoan 60k erantzun zuten)
2. Kulturaren arloan: 150 erakundetako 500 langile baino gehiagok.

Denetara, proiektu honetan 640 bat langilek parte hartzen dute.

Erakunde bakoitzak arlo hauetako bere egoeraren diagnostikoak izango ditu.

NORI ZUZENDUA GENERO BERDINTASUNAREN ARLOAN

Proiektua lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten Genero Berdintasun teknikariek egitea pentsatu du HAKOBAk, hiru arrazoi direla medio: hizkuntza gaitasun handiko langileak direlako; berdintasun kontuekin sentsibilizazio berezia dutelako; eta Emakundek eta Eudelek proiektuaren zeharkakotasuna bermatzen dutelako.

KULTURAREN ARLOAN

Proiektua lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten Kultura arlo batzuetako langileekin egitea pentsatu du HAKOBAk, hizkuntza gaitasun handiko langileak direlako. Kultura arlo horiek honako hauek dira: Liburutegiak, Kultura Sustapena eta Ondarea.

Proiektuaren protagonistak EAEko administrazioetako Genero Berdintasuna eta Kultura (liburutegiak, kultura sustapena eta ondarea) arloko langileak badira ere, administrazio horietako euskara teknikariek ere aholkularitza lanak egingo dituzte ondoren aipatuko diren helburuak betetzen laguntzeko.

2. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANAK EUSKARAZ IZAN DAITEZEN ALDATZEKO METODOLOGIA

Ondoren eskaintzen den metodologia HAKOBAREN baitan burutu diren esperientzietatik eratorri da.

Egitasmoen helburua hizkuntza-aldaketa gauzatzea da; alegia, euskaraz egiten ez den harremana euskaraz egitera ailegatzea eta euskaraz egiten dena indartzea. Aldaketa hori, normalean, ez da berehala lortzen; prozesu bat da: aldaketa egiten ikasi egin behar da, pauso batzuk eman behar dira, baldintza batzuk bete behar dira eta fase batzuetatik igaro behar da.

Metodologikoki, aldaketa gauzatzeko prozesua honako urrats nagusi hauetan banatzen da:

1. ERAKUNDEAREN ERABAKIA

HAKOBA politikoak hartutako erabakiari men eginez, 2019an 150 bat erakundek parte hartu dute proiektu honetan. Beraz, erabakia erakundearena izan da.

Erakundeek euren ekimenez abiatu dute beste administrazio batzuekiko hartu-emanakeuskaraz izateko egitasmoa. Halere, sarritan, egitasmoa abiatzeko, beharrezkoa da “bitartekarien” laguntza egotea (izan daiteke HPS, HAKOBA...). Bitartekarien egitekoak dira: egitasmoan parte hartzera bultzatzea, erakundeak elkarren artean harremanetan jartzea eta egitasmoan zehar laguntzea.

Egitasmoetan zenbanahi erakundek hartu dezakete parte; eta bi erakunderen arteko egitasmoak ere izan daitezke.

2. UNIBERTSOA ZEDARRITZEA

Erakundeak egin behar duen lehenengo pausoa da identifikatzea proiektu horretan parte hartuko duten pertsonak. Horretarako kontuan hartu behar da proiektu honetan parte hartzeko langileak honako baldintzak bete behar dituela:

1. Bere lanpostuari dagokion Hizkuntza-Eskakizuna (HE) edo goragokoren bat egiaztatuta izan behar duela. Lanpostuari 4HE badagokio eta langileak 3HE egiaztatua badu, kasu horretan ere parte hartu behar du.
2. Proiektuari dagozkion arloetako beste erakundeekin harremanak dituztenak.

3. ERABAKIAREN ZABALKUNDEA ERAKUNDE BARRUAN

Erakundeak, behin unibertsoa zedarrituta, inplikaturako langileen aurrean proiektuaren nondik norakoak azalduko ditu, eta azalduko du zergatik erabaki zuen proiektu honetan parte hartzea.

4. EGOERAREN DIAGNOSIA

Ahozko eta idatzizko harreman-mota jakin batzuetan euskararen erabilera kuantifikatu

Laster bidaliko zaio proiektu honetan parte hartu duen erakundeari arlo horietako euskararen erabilaren diagnostikoa. Ondo aztertu behar da nondik jo daitekeen arlo hauetako harremanetan euskarak aurrera egiteko.

Egitasmoari ekiteko, beharrezkoa da parte hartuko duten organoen egoera ezagutzea. Zehazki, jakin behar da zein hizkuntza erabiltzen diren beste administrazioekiko harremanetan, eta zein neurritan erabiltzen diren.

Diagnosi hori egiteko, HAKOBAko lantalde teknikoak 2019ko udan enpresa bat kontratatu zuen parte hartu nahi izan zuten erakundeen artean diagnosi zientifikoa egiteko. Beraz, diagnosi horretan parte hartu ez bazen eta orain parte hartu nahi bada, diagnostikoa egin behar da.

5. HELBURU NEURGARRIAK

Diagnosian izandako emaitzetatik abiatuta, denbora jakin batean lortzeko moduko helburu kuantifikatuak adostu

Egitasmoan parte hartuko duten organoek HAKOBAk proposaturako gutxieneko helburuak kontuan hartuko ditu. Izan ere, horiek diagnostikoko adierazleekin lotuta dauden helburuak dira.

Horrekin batera, erakundeek helburuak lortzeko epea ere adostu behar dute. HAKOBAtik gomendatzen da 2 urteko tartea hartzea.

Helburuak errealistak eta neurgarriak izan behar dira, eta zenbakitan emango dira, adb. ehunekotan.

6. KANPO-ZABALKUNDEA

Parte hartzen dutenen artean egitasmoa zabaltu eta sozializatu, sinesgarritasuna sendotzeko

Egitasmoaren arrakastari begira, oso garrantzitsua da lidergo instituzionala proiektuari bultzada emateko. Proiektuan parte hartzen dutenek egitasmoa sendoa dela eta erakundearen bultzada duela, ez direla bakarrik, beste erakunde/organo/langile askok ere ahalegin berean diharduela eta egitasmoa erakundearena berarena dela jakin behar dute.

Lortu behar da partehartzaile diren erakunde guztiek bere egitea egitasmoa, eta euren hartzea egitasmoaren ardura eta lidergoa.

Hori lortzeko, oso baliagarri ikusten da partehartzaileak bilkura edo ekitaldi instituzional batean elkartzea. Adibidez, erakunde/organo partehartzaile guztiak "adostasunen protokolo" bat izenpetzeko bildu daitezke, ekitaldi ofizial eta instituzional batean, egitasmoari hasiera emateko. Langile ahalik eta gehien bertaratzea sustatuko da.

7. EGITASMOAREN INPLEMENTAZIOA

Erakunde bakoitzean egitasmoa aurrera eramateko neurriak hartu eta gauzatu

Helburuak lortzeko, erakunde bakoitzak dagozkion neurriak hartuko ditu. Neurriak era askotakoak izan daitezke, adb.:

- Egitasmoaren planifikazioarekin eta erabakiak hartzearekin zerikusia dutenak: zer lehenengo, zer bigarren; ahozkoak, idatzizkoak; zer den errazena, zer zailena; norekin hasi...
- Langileen hizkuntza-gaitasunarekin edota euskaraz egiteko konfiantzarekin zerikusia dutenak (trebakuntza, zuzenketa...).
- Laneko baliabideekin eta tresnekin zerikusia dutenak (informatika, tramitazio elektronikoa...).
- Lanaren antolaketa eta banaketarekin zerikusia dutenak (euskara hutsez lan egiteak ez du lan karga handiagoa ekarri behar).
- Idazki estandarizatuarekin zerikusia dutenak (erabiltzen diren txantiloak, inprimakiak...).
- Proiektu honetatik eratorzen diren ekimen guztiak erabilera plan estrategikoetan islatu behar dira.

8. EGITASMOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

4. urratsean esan den bezala, helburua da erakunde partehartzaileek eurek lideratzea egitasmoa (ez HPSk, ez HAKOBAK, ez eus-kara zerbitzuek).

Egitasmoaren amaieran, berriro egingo da datu-bilketa, 2. urratseko diagnosirako erabili diren modu eta irizpide bertsuekin.

HAKOBAren datu-bilketaren emaitzen argitan, erakundeak helburuen betetze-maila aztertuko du, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak erabakiko ditu.

Halaber, HAKOBA 2 urteren buruan ebaluazio estatistikoa egiteaz arduratuko da. Gainera, HPSk horren balorazioa egin, metodologia berrikusi eta helburuak egokituko ditu.

Horrez gain, proiektua beste arloetara zabaltea ere erabaki dezake HAKOBAK.

3. HELBURU NAGUSIA

EAEko administrazioko eta foru- eta toki-administrazioetako langileen arteko kanpoko lan-komunikazioetan euskarazko komunikazioak areagotzea ahoz zein idatziz.

Ahozko adierazlea: Euskarazko batez besteko ahozko erabilera (%)

Idatzizko adierazlea: Euskarazko batez besteko idatzizko erabilera (%)

HAKOBAtik honako bi helburu orokor hauek proposatzen dira, lagungarri izan daitezkeelakoan (baina, esan bezala, aldatu egin daitezke egitasmo bakoitzaren arabera):

4. HELBURU OROKORRAK

H-1	Batez bestekotik behera dauden parametroetan, egitasmoan parte hartzen duten erakundeen batz bestekora heltzea: - ahozko parametroetan, ahozko batez bestekora heltzea. - idatzizko parametroetan, idatzizko batez bestekora heltzea.
H-2	Batez bestekotik gora dauden parametroetan, %6ko igoera lortzea bi urtetan

HAKOBAREN eskarmentutik, ikusi da egokia dela helburuak ezartzea ondorengo zortzi parametro hauetan:

AHOZKO HARREMANEI DAGOKIENEZ (beti ere egitasmoan parte hartzen duten organoen arteko ahozko harremanei dagokienez)	Aurrez aurreko elkarrizketetan
	Telefono bidezko elkarrizketetan
	Lan-bileretan
	Ekitaldietan

IDATZIZKO HARREMANEI DAGOKIENEZ (beti ere egitasmoan parte hartzen duten organoen arteko idatzizko harremanei dagokienez)	Idazki erraz eta laburretan
	Lan bileretako deialdietan eta aktetan
	Idazki teknikoetan (txostenak...)
	Ekitaldietan erabiltzen diren dokumentuetan

Diagnosiaren bitartez, parametro horietako bakoitzean dagoen hizkuntza-erabilera jakingo da, erakundez erakunde eta orotara.

5. HELBURU ZEHATZAK ETA HAI EI LOTUTAKO ADIERAZLE PANELA

HAKOBAK honela definitzea proposatzen du parametro bakoitzean erabiliko diren adierazleak:

Ahozko komunikazioak:

1. Aurrez aurreko elkarrizketetan, euskaraz egitea beste erakunde bateko langileekin.

Adierazlea: Batez besteko erabilera, ahozko lau harremanetan, inkestatuak harremana daukan erakundearen arabera (%), Aurrez aurreko euskarazko elkarrizketen ehunekoa

2. Telefonozko elkarrizketetan, euskaraz egitea beste erakunde bateko langileekin.

Adierazlea: Batez besteko erabilera, ahozko lau harremanetan, inkestatuak harremana daukan erakundearen arabera (%) Telefonozko euskarazko elkarrizketen ehunekoa

3. Beste erakunde bateko langileekin arteko lan-bilerak euskaraz egitea.

Adierazlea: Batez besteko erabilera, ahozko lau harremanetan, inkestatuak harremana daukan erakundearen arabera (%) Beste erakundeetako langileen arteko euskarazko lan-bileren ehunekoa

4. Langileen ekitaldietan (aurkezpenak, mintegiak, topaketak...), euskaraz egitea.

Adierazlea: Batez besteko erabilera, ahozko lau harremanetan, inkestatuak harremana daukan erakundearen arabera (%), Beste erakundeetako langileen arteko euskarazko ekitaldien ehuneko.

Idatzizko komunikazioak:

1. Gaztelaniaz edo ele bietan egiten diren beste erakunde bateko langileen arteko idazki erraz eta laburrak (e-mailak, gutunak, ofizioak...) euskara hutsez idaztea.

Adierazlea: Batez besteko idatzizko erabilera komunikazio motaren arabera

2. Beste erakunde langileen arteko lan-bileratako deialdiak eta aktak euskara hutsez idaztea.

Adierazlea: Batez besteko idatzizko erabilera komunikazio motaren arabera

3. Gaztelaniaz edo ele bietan egiten diren idazki teknikoak (txostenak...) euskara hutsez idaztea.

Adierazlea: Batez besteko idatzizko erabilera komunikazio motaren arabera

4. Beste erakunde bateko langileen arteko ekitaldietan erabiltzen diren dokumentuak euskaraz egitea.

Adierazlea: Batez besteko idatzizko erabilera komunikazio motaren arabera

6. HELBURUAK LORTZEN LAGUNTZEKO URRATS POSIBLEAK

Hizkuntza-aldaketa lortzeko, hau da, harremanetan gaztelaniaz jardutetik euskaraz jardutera aldatzeko, hona urrats orokor batzuk:

1. Langileek beste administrazioetan dituzten ohiko solaskide euskaldunak identifikatzea.
2. Solaskide euskaldunetatik zehaztu norekin duen ohiko hartu-emana gaztelaniaz, ahoz zein idatziz.
3. Horien artean, aurreikusi zein solaskiderekin gauzatu dezakeen hizkuntza-aldaketa. Gaztelaniaz aritzen den solaskide horiekin hizkuntza aldatzeko hurrenkera egin, errazenetik zailenera; hau da, hizkuntza-aldaketa erraz gauzatu dezakeela uste duen solaskidetik hasi eta zailagoa izango dela uste duen solaskidera.

4. Solaskideei asmoaren berri eman, solaskide errazenetatik hasita: telefono deietan, e-mailetan, ahozko hartu emanetan bakarrik, hartu-eman guztietan...

Berri ematea bi mailatan egin daiteke. Egiteko hau nahiko pertsonala izaten da eta kasuan-kasuan baloratu behar da zelan jokatu:

- a. Organoko arduradunak solaskidearen organoari jakinarazi (egokien irizten zaion bidea erabiliz, ahoz, emailaz, gutunez...).
- b. Langileak berak zuzenean solaskideari jakinarazi. Zuzenean edo aurrez aurre jakinarazi nahi ez duten langileen kasuan, lagungarri izan daiteke tarteko zerbait erabiltzea, esate baterako, e-mail bat.

7. LANGILE EUSKALDUNEK ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETARAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

	AHOZKOAK				IDATZIZKOAK			
	Aurrez aurreko elkarrizketa	Telefono bidezko elkarrizketa	Lan bilerak	Ekitaldi publikoak	E-mailak, gutunak eta ofizioak	Bilera deialdi eta aktak	Txosten motzak	Txosten luzeak
Euskaldunekin	Euskara hutsean	Euskara hutsean	Euskara hutsean	Euskara hutsean	Euskara hutsean	Euskara hutsean	Euskara hutsean	Euskara hutsean
Euskaldun hartzailleekin	Euskaraz nagusiki, ulertzen ez dituen gauzak gazteleraz azalduz.	Euskaraz nagusiki, ulertzen ez dituen gauzak gazteleraz azalduz.	Euskaraz nagusiki, ulertzen ez dituen gauzak gazteleraz azalduz.	Euskaraz idatziko dira, baina eduki oinarritzkoena ele bietan	Euskara hutsean	Euskara hutsean	Euskara hutsean	Euskara hutsean
	Ahobizi belarriprest saiakera.	Ahobizi belarriprest saiakera.	Ahobizi belarriprest saiakera.					

